

AGUR, XIBERUA!

Pierre Bordazarre "Etxahun-Iruri"

(Iruri, Zuberoa, 1908 – Paue, Okzitania, 1979)

Euskara batuan

1/ Sorlekua utzirik gazte nintzelarik, / Parisen sartu nintzen [kuraiaz](#) beterik, / plazerez gose eta buruan harturik / behar nuela [alegera](#) bizi. / [Bostetan](#) geroztik / negar egiten dut Xiberua zugatik.

Errepika

Agur, Xiberua, / bazter guzietako xokorik ederrena. / Agur, sorlekua, / zurekin ditut ene ametsik goxoenak. / Bihotzaren erditik / bostetan [ilki](#) didazu hasperena. / Zu utziz geroztik / bizi naiz tristerik, / abandonaturik. / Ez baita herririk, / Paris ez besterik, / zu bezalakorik.

2/ Palazio ederretan gara alojatzen, / eta segur goratik aire freskoa hartzen. / Gain behera so eginik baitzait iruditzen / Orhi gainean naizela [agitzen](#), / baina ez dira hemen / bazterrak berdatzen, / txoriak kantatzen!

3/ Ametsa, lagun nazak ni Atharratzerat, / ene azken egunen han igarotzera, / Orhiko txoriaren kantuz [behatzera](#), / barka ditzan nik egin negarrak. / Hots, Xiberotarrak, / aitzinean gora / euskaldun bandera.

Hitzak eta musika: Etxahun-Iruri
Etxahun-Iruri, *Khantan*, Jakes Larrondo agertzailea, 1977.
<https://armiarma.eus/emailuak/mizka/irur00.htm>